

BERRIGARA

10. zenbakia JARDUN Elkarteak, Bergara 1996, urtarrilak 26

*Jokin
Etxaniz*

Txapela jazteko prest



ALDASORO

Gizonezko eta emakumezkoentzako oinetakoak
POLTSAK • OSAGARRIAK

Espaloia, 6

☎ 76 20 70

BERGARA PIEL

Emakumezko eta gizonezkoentzako txaketak eta
txaketoiak, prakak...

ORAIN ESPALOIAN, KALITATERIK ONENA PREZIORIK ONENEAN!!



Altzarien dekorazio eta erakusketa

- BETIKO LEIHOAK GAURKO TEKNOLOJIARI EGOKITUTA
- EZ HOTZIK, EZ ZARATARIK, EZ URIK!!
- LEIHO TERMOAKUSTIKOAK
 - ATEAK
 - ARMAIRUAK
- EGURREZ EGINDAKO LANAK

AROZTEGIA

UGARTE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa (Baruti)
Telefonoa eta Faxa: 76 54 91

**ZATOK GURE
ERAKUSKETA IKUSTERA**



GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologien unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarte.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnoa eta Faxes: 76 08 19

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar
Jone Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola
Mariipi Laskurain
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza
Miguel Angel Elkoroberezibar
Alex Labaien

Komikiak:

Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Alex Ugalde
Unai Azkarate

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

4.000 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?


JAVIER GABILONDO Gobernazio Batzordeburua

- Zer gertatu da Murbipark enpresak herrian jarritako haurrentzako parkeekin?

- Azken hilabetetan kalteak izan dira eta Murbipark enpresari galera horien txosten bat egiteko eskatu zitzaion. Txostenaren arabera, maiztzezik abendura bitartean, bandalismoaren eraginez batipat, hainbat konponketa egin behar izan dira jolastokietan, 615.000 pezetako kostoarekin. Hala ere, enpresak 142 mila pezeta bakarrik fakturatu dizkio Udalari, nahiz eta konponketa hauek ez sartu 10 urteko garantia eta mantenimendu kontratuan.

- Gobernu Batzordeak zein erabaki hartu du?

- Aipatutako ekintzak



salatzea erabaki dugu, herriari kultur mailan eta edukazio mailan nolako jendea dagoen esateko, nahiz eta denak berdinak ez izan. Nahiko larria da gaia eta ez dago eskubiderik honelako ekintzak egiteko, pena bat da. Ea ekintza horien egileak inoiz kontzientziatzen diren.

"Haurrentzako parkeetan 615.000 pta.ko kalteak izan dira azken hilabetetan"

I T U R R I O N E T I K

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak Karnabaletan Udal Pilotalekuan

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoan ikuskizuna izango da Udal Pilotalekuan otsailaren 18an, arratsaldeko 6etan, Karnabaletako programazioaren barruan. Udaleko Kultur Zerbitzuak osatu du dagoeneko jai-egitaraua eta telebistako pailazoena izango da ekitaldirik garrantzitsuenetarikoa. Horrez gain, haur-jolasak, kalejirak, Udal Musika Bandaren kontzertua, dantzaldiak edota txotxongilo emanaldiak iragarri dira otsailaren 17tik 20ra bitartean. Nobedade gisa, Karnabalei amaiera ematen dion ohizko sardinaren entierroa aurren aurreratu egingo da eta arratsaldeko 8 t'erdietan egingo da, gauerdian egin beharrean.

E S A N D U T E

"Gu geu gara arazo bakarra. Fedea, aurrera egiteko gogoia, gure gabeziak aitortzeko beharrezkoa den umiltasuna, itxaropena eta garapenaren bidean gogor lan egiteko gogoia falta zaizkigu"

JAVIER RETEGI
Industria Sailburua
EL CORREO

"Belokik harrিতuta utzi ninduen Labriten jokatu zuen partiduarekin. Gaindiezina ez da, baina oso zaila da berari irabaztea. Julian eta Ladisek izugarri jokatu zuten, baina Ruben ikusten dut eta ezinezkoa iruditzen zait 21 urterekin horrenbeste jokatzek. Batzuetan bere aurrean txapela kentzea besterik ez daukazu. Oso zaila da bere jokoa eustea baina badakit Fernandok [Arretxe] finaletan erantzuten duela eta ziur nago asko jokatuko duela"

JOKIN ETXANIZ
Pelotaria
EGIN

**FELPUDO MALDITO**

Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30.
Asteartea: 19.30 (Ikuslearen eguna).

**EL HIJO DE LA PANTERA ROSA**

Igandea: 11.30.

**SOMEBODY TO LOVE (J.B.)**

Osteguna: 20.00

Zinea

▼▼ **Josiane Balasko** zuzendariaren filme honek Frantzia ordezkatu du aurtengo oscarretan. *Laurent* (**Alain Chabat**) eta *Loli* (**Victoria Abril**) senar-emazteen artean, *Marijo* (**Josiane Balasko** bera) agertuko da.... Lolirekin maiteminduko delarik. Hiruki-klasikoari ironiazko buelta ematen dion komedia honek kritika eta publikoaren oneritzia jaso du, ikusleen arteko eztabaida piztuz. **Miguel Bosé**ekin.

▼▼ **Blake Edwards** zuzendari ospetsuak (*Días de vino y rosas*, *Victor o Victoria*) pantera arrosaren abenturak berreskuratu ditu, nahiz eta filme hauei arrakasta eman zien **Peter Sellers** aktorea orain urte dexente hil. Hala ere situazio barregarriak ez dira faltako. **Roberto Benigni** eta **Claudia Cardinale**ekin.

▼▼ **Alexandre Rockwell** zuzendariaren (*In the soup*) filme honetan, **Rosie Perez**, **Harvey Keitel**, **Anthony Quinn** edota **Sam Fuller** dira errepertoan. *Mercedese* (**Rosie Perez**) Los Angeleseko dantza areto batean lan egiten du baina bere ilusioa aktorea izatea da. *Ernesto* (**Michael DeLorenzo**) gaztea erabat maiteminduko da berarekin.

Deiak

▼ **Fosil erakusketa.** Jesus Mari Narváezen fosilak Udaletxeko Pleno aretoan igandera arte.

▼ **Eskulanak.** Izaskun Saiz eta Edurne Uribealgoren ikasleen lanak Kultur Etxean igandera arte.

▼ **Bideoa.** JARDUNek antolatuta *Kalabaza tripontzia* haurrentzako bideoa larunbatean, hilak 27, 11etan Kultur Etxean.

▼ **Argazkiak.** Juan Antonio Unzurrunzagaren erakusketa Naitari tabernan.

▼ **Beart** arte elkarteak otsailaren 9tik 11ra bitartean Madrileko ARCO feria ikustera joateko irteera antolatu du. Izen-ematea Kultur Etxean, 76 44 46 telefonoan.

Ogia

▼ **Igandea 28:** Bolintxo.

FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 26:** Puy/Español.
- ▼ **Larunbata 27:** Guallar/Corcuera.
- ▼ **Igandea 28:** Guallar/Irizar.
- ▼ **Astelehena 29:** Estella/Amezua.
- ▼ **Asteartea 30:** Mozos/Ruiz.
- ▼ **Asteazkena 31:** Camacho/Mor..
- ▼ **Osteguna 1:** Puy.

PINTURAS BERGARA**PB**

Aranerreka, 32 behea. BERGARA.
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • GARBIKETAK •
• APAINKETARAKO PINTURAK • ERROTULOAK • etab...

Mikel Herzog


Kantari bergararraren kontzertua gaur

Mikel Herzogek kontzertua eskeiniko du gaur gaueko 10 t'erdietan Bergarako Udal Pilotalekuan. Kantari bergararrak bi disko kaleratu ditu orain arte, "Bienvenidos al paraíso" eta "Un regalo de amor". Bere hitzetan, "disko horietako abestiak eta sorpresatxoren bat eskeiniko ditugu kontzertuan. Nere karrerari errepasotxo bat emango diogu, batipat bihotzari zuzendutako abestiak eskeiniz. Muntaia ona daukagu eta ikuskizun eder bat emango dugula uste dut".

Herzog, besteak beste, Nekez, Cadillac eta La década prodigiosa taldeetan izan da eta beste hainbat talderekin produktore lanak bete ditu, tartean Zapato Veloz edota Contacto eta Roxana talde mexikarrekin. Horrez gain, beste abeslari ezagun batzuentzat edota publikitate kanpainetarako musika ere konposatu izan du.

Hego Ameriketara bere azken diskoa aurkeztera joan aurretik, bere jaioterrian izango da Mikel Herzog. "Ilusio haundia egiten dit Bergaran jotzeko. Pena bakarria Frontoia baino lokal egokiago

Mikel Herzog kantariak, "Un regalo de amor", bere bigarren diskoaren aurkezpena egingo du gaur gaueko 10.30etatik aurrera Udal Pilotalekuan.



bat ez egotea da baina hala ere ekipo ona daukagu eta saiatuko gara zailtasun guztiak gainditzien. Zergatik ez dudan Bergaran lehenago jo? Ba egia esan ezinezkoa izan delako. Herriko azken jaietan jotzeko asmoa genukan baina, itxura, Frontoiak ez zituen segurtasun neurri guztiak betetzen eta berritze la-

nak amaitu arte atzeratu egin behar izan genuen".

Pop kontzertu honetarako 20 laguneko taldea ekarriko du Herzogek. "Eskenatokian 5 musiko, bi koro eta neu izango gara baina, horrez gain, argien muntaia eta soinurako beste hainbat pertsona behar dira. Rocka baino, pop musika jotzen dugula esango nu-

ke eta baladak eta abesti kañeroak tartekatuko ditugu". Herzog Madrilen bizi da gaur egun eta bere esanetan oso gustora ari da lanean. "Madrilek oso ondo tratatu nau. Bizimodua gustatzen zaidan arlo batean irabazten ari naiz eta hori baino gehiago ezin da eskatu".

Gaurko kontzerturako sarrerak 1.500 pezetan salduko dira, aurrez erosiz gero 1.000 pezeta balioko dutelarik. Bergaran, Usoa eta Ariznoa tabernetan, Kultur Etxean eta Frontoian bertan eskuratu ahal izango dira.

"Batipat bihotzari zuzendutako abestiak eskeiniko ditugu"

Zure
konfidantzako
denda



Tfnok: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Lehentasunak

Beste bergarar askok bezala, ni ere sarritan ibiltzen naiz trenbideko pasealekuan eta egun hauetako batean harrituta geratu naiz, Moiuva ibiltokian, Udaleko langileek etxebizitza partikular batera (Eguzki-Dorre etxera) doan bidea konpontzen zihardutela ikustean.

Bururatu zitzaidan lehenengo gauza honako hau izan zen: "Ez ote dute udal langileek etxe horretarako bidea konpontzeaz aparteko beste lanik?" Buruari buelta asmo eman ondoren, nere artean pentsatu nuen: zerga-ordaintzaile onen bat izango dok, edo!"

Baina, uste dut huts egiteko beldur haundiegirik gabe, esan dezakedala trenbideko pasealekuan bat baino gehiago direla konpontzen ari direna baino askoz okerrago eta arriskutsuago dauden tramuak; eta pasealeku hori erabiltzen duten ehundaka eta ehundaka herritarrek etxe horretakoa bezain zerga-ordaintzaile onak direla. Lan horiek egiteko baimena ematen duten arduradunari ere esan beharko zaio ea herrian ez dagoen hori baino lehenago konpondu beharrekorik. Besterik ez, zorionak udalari bere azertuagatik. Zerga-ordaintzaile batek.

J.A.R. (NAN: 15.361.772)

A.J.G.ri erantzuna

Joan zen asteko Berrigararen (219. zenbakia), AJGk idatzitako "Gora González, gora GAL" izenburuko eskutitzaren azken parrafoa dela eta BERRIGARRAK azalpen batzuk eman nahi ditu.

Hau zioen AJGk aipatutako gutunaren azken parrafoan: "Azkenik, Berrigararentzat apunte txikitxo bat; Cendoya politikoa izaki, ez dut inongo aitzakiarik topatzen preso politiko bati, bergarar seme-alabaren bati elkarrizketa bat egin ez diezaiozuen, gai politikotan sartzen ez zaretela ez da beraz erabateko egia".

Honen aurrean Berrigara egiten dugunok argitu nahi dugu gai politikoetan sartzen ez garenik ez dugula inoiz esan. Ez dakigu nondik atera duzun konklusio hori. Eta gai politikoetan sartzen ez garelako gezurra dela frogatzeko adibide pare bat. 1995eko azken alean (217. zenbakia), Mikel Zubimendiri, HBko legebiltzarkideari eta Jarraiko kideari, elkarrizketa egin zitzaion eta bertan gai politikoak jorratzen ziren.

Bestalde, presoak aipatzen dituzenez, beste adibide hau: 178. alean (1995ko otsailak 3) Maite Guridi presoari egin zitzaion ongi-etorriaren berri eman genuen eta elkarrizketa ere egin genion.

BERRIGARA

Berrigara Gida 95

Berrigarak Gabonetan kaleratu zuen Gida komertzialean huts batzuk ageri dira. Honako hauek dira gaizki agerzten direnak: Alde batetik, Antzolako Juan Cruz argazkidendaren iragarkian telefono zenbakia ez da ondo ikusten. 78 70 66 da Juan Cruz argazkidendaren telefono zenbaki zuzena. Bestalde, Bergarako Renteri ikuztegiaren telefonoa oker dago. Telefono zuzena, 76 19 68 da. Xipizaro ludotekaren telefonoa ere ez dago ondo. Zuzena, 76 23 76 da. Ogiaren txandari buruzko informazioan huts batzuk daude eta beraz, hobe duzue ez erabiltzea. Azkenik, esan dezagun, aurten Gidan agertu ez direnek hurrengoan azaldu nahi badute jar daitezela Berrigararekin harremanetan. Aurten azaldu nahi zutenei, Berrigararen erruz agertu ez direlako, barkamenak aldeztu aurretik.

Tiira biraka



BITTOR RODRIGUEZ

◆ **NANaren berrizketa**

NANak berriztuko dira hurrengo astean ere Bergarako Ertzaintzaren komisaldegian, goizeko 9.30etatik 13.15etara. Asteartean abizenaren hasierako letra O-P-Q-R-S edo T dutenak aurkeztuko dira eta asteazkenean, berriz, V eta Z letrarekin hasten diren abizendunak. Interesatuak NAN zaharra eta bi argazki eraman beharko dituzte.

◆ **Malabarismo ikastaroa**

JARDUN Elkarteak malabarismo ikastaroa antolatu du 11 urtetik 14 urtera bitarteko gaztetxoentzat, ostiraletan arratsaldeko 5^{er}erdietatik 7etara. Prezioa 1.500 pezeta bazkideentzat eta 2.000 gainontzekoentzat izango da. Izen-ematea Jardun Elkartearen (Masterreka 13an) bertan egin ahal izango da otsailaren 2ra arte. Argibideak 76 08 19 telefonoan:

HILDAKOAK

Aste honetan ez dugu hildakoen berri izan Bergaran

JAIOTAKOAK

Asier Sampietro Alberdi
Urtarrilak 9
Mikel Jiménez Carrasco
Urtarrilak 15



Alzheimer gaisoen familiarrek behin eta berriz azpimarratu dute eguneko zentroaren beharra.

Jubilatu^{en} egoitzan eguneko zentroa jartzeko asmoa

Familiarren premia duten gaisoei zuzendutako eguneko zentro bat martxan jartzeko ideiarri eutsi dio Udalak egunotan. Alkatea Diputazioko ordezkariekin bildu da eta Diputazioak bere oniritzia eman dio proiektuari, kolaboratzeko prest azalduz. Hasierako proiektuaren arabera, aipatutako eguneko zentroa Jubilatuen Egoitzan kokatu eta bertan gaiso fisiko zein psikikoak jasotzeko gela bat egokitu litzateke. Hala ere, oraindik ez da zehaztu Egoitzako zein pisutan jarriko den eguneko zen-

troa. Diputazioak, bere aldetik, hirugarren pisuan egiteko asmoa azaldu du, haunditze obrarik egin behar ez izateko. Hala ere, Jubilatuetako Gobernu Batzordeak bere oniritzia eman beharko du.

Bergarako Alzheimer gaisoen elkarteak Udaleko ordezkariari eguneko zentro bat jartzeko ideia ere planteatu zion aurreko urtean. Familiarrek 24 orduz gaiso bat zaintzeak dakartzan ondorioak (estresa, bizitza soziala egiterik ez izatea..., etab) aipatu izan dituzte honelako zentro baten beharra azpimarra-

tzeko. Dagoeneko zerbitzu hau Eibarren, Zumarragan edota Deban eskeintzen da. Gaisoak goizetik arratsaldera arte bertan izaten dira eta gaisoen egoera hobetzeaz gain, familiarrek beren bizitza egin eta atse-denerako aukera dute. Eguneko zentroa, gaisoak bertara eramateaz gain, gaisoen erreabilitazioaz arduratuko litzateke eta horrek ere eragina izango luke gaisoen tratamendu kalitateari dagokionean. Hala ere, oraindik ez da zehaztu noiz egingo diren eguneko zentroa martxan jartzeko lanak.

Industria hornikuntza



Industriaren alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE • Telefonoa: 79 42 22 • Faxa: 76 47 89

Santa Kruz, 25 ARETXABALETA • Telefonoa: 77 11 75 • Faxa: 77 13 08

◆ San Pauloak

astebukaeran Uberan


Uberako San Paulo jaiek aurrera egingo dute astebukaeran. Bihar larunbata, 11etan, haurrentzako jolasak izango dira eta arratsaldeko 3retan mendi bizikleta lasterketa jokatu da (izen-ematea ordubete lehenago itxiko da). Igandean, berriz, 10.30etan II. Auto-kross saria jokatu da (zirkuitua Fagorreko zelaian), 11etan meza izango da eta, amaitzeko, 12etan gazteen pelota finalak jokatu dira Uberako pilotalekuan.

◆ Gestoren kotxe karabana

"Presoak Euskal Herrira" lemapean, bailarako Gestorek kotxe karabana iragarri dute larunbaterako, urtarrilak 27. Kotxe karabana Eskoriatzatik Bergarara egingo da eta bergararrak Beheko Estazioan bilduko dira 15.30etan. Arratsaldeko 7.30etan, berriz, manifestazioa aterako da Plazatik. Bestalde, otsailaren 3an, 19.30etan enkartelada egingo dute Oñatiko Plazan eta otsailaren 11n manifestazioa Arrasateko Sebero Altuben, 19.30etan.

◆ Jardunekoak Santa Ageda eskean

Datorren otsailaren 4an, San Ageda bezperan, Jardun Elkarteak, soinu, panderu eta bertsolariez lagunduta eskean irtetzeko asmoa dauka. Bazkide guztiak eta bazkide ez direnak ere gonbidatu nahi ditu Jardunek. Interesatuak 76 08 19 telefono zenbakira deitu dezakete.



Roke Iñarra ez du sententzia errekurritzeko asmorik.

Roke Iñarra Antzuolako alkate intsumisoaren kontrako sententzia

6 urteko inhabilitazioa eta 100.000 pta.ko zigorra

Donostiako Entzutegiak 6 urte eta egun bateko inhabilitazioa eta 100.000 pezetako zigorra ezarri dio Roke Iñarra Antzuolako alkate ohiari soldaduzkarako alistamentuan ez kolaboratzeagatik. 1987an, Antzuolako Udalak, Jarrairen moziotat onartu zuen, "espainiar ejerzitoari laguntza emateari uko eginenez". Orduan Jose Ignacio Agirre (HB) zen Antzuolako alkatea. Nafarroako Auzitegi Gorenak, 1991n, baliogabe utzi zuen akordioa baina 1993an, Roke Iñarra (EAJ) alkate-tza hartu ondoren, Antzuolako Udalbatzak akordio bera onartu zuen. Euskal Herriko Auzitegi Gorenak ere moziorekin baliola ezeztatu zuen. Fiskalak 8 urteko inhabilitazioa eta 300.000 pezetako zigorra es-

katu zuen Iñararentzat soldaduzkaren legea eta erreklutamendua- ren araudia ez bete eta Nafarroako Auzitegi Gorenari kaso ez egiteagatik.

Honako hau Udal intsumiso baten kontrako sententzia izan da. Roke Iñararen eritziz, "egunkaririk jakin dut sententziaren berri. Orduko korporazioa eta Antzuolako berria erabakiarekin ados zeudelako hartu genuen jarrera bura. Ez dugu uste soldaduzka derrigorrezkoa izan behar denik. Udaltxea ejerzitoarekin zerikusirik ez duen ente zibil bat da eta nere ustez ejerzitoa lan hori egiteko gauza da. Errekurtsioa egingo dugun? Ez dut uste merezi duenik, hortxe lagako dugu asuntoa".

SiasKa

Dena zure
haurrentzako

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

GALLASTEGI

Jostundegia

mahoizko lanerako
jantziak

San Pedro, 17 ☎ 76 10 85

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan


Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

Josean Tolosari omenaldia eskainiko dio Oxirondo elkarteak

Bergarako Oxirondo elkarteak Josean Tolosa pelotari ohiari omenaldia eskeiniko dio datorren ostiralean, otsailak 2. Oxirondokoek programa erakargarria prestatu dute Bergarako Frontoia eta herriko pelotazaleekin hain harreman berezia izan duen Josean Tolosaren omenez. Pelota jaialdia arratsaldeko 7.15etan hasiko da. Lehendabizi pelota saileko gaztetxoek barruka jokatu dute, ondoren Muruamendiarezek eta Otxaudorenak Saralegi eta Barriolaren aurka jokatu dute eta, amaitzeko, Berreaondok eta Tolosa berak osatutako bikoteak eta Goñik eta Apeztegiak osatutakoak neurtuko dituzte indarrak. Sarrerak 600 pezetan salduko dira eta batutako dirua herriko pelota eskolarentzako izango da, antolatzaileen eta Tolosa beraren asmoa hori zelako.

Batutako dirua herriko pelota eskolarentzat izango da.

Josean Tolosa azken txapeldun gipuzkoarrak, esan bezala, oso harreman estua izan du Bergararekin. Udal pelotalekuan entrenamendu ordu asko eman zituen bere ikasle garaian eta beti ere oso gustora jokatu izan du Bergaran. Josean Tolosaren hitzetan, *"Bergarako pelota eskolan ibilitakoa naiz eta bertan hasi nintzen profesional bezala. Lagun asko ditut bertan eta azken omenaldia Bergaran izatea poz handia da niretzat"*.



◆ EAJren oharra

Mratxoaren 3an izango diren hauteskunde orokorretan botoa korreoz eman nahi dutenentzat Bergarako EAJ-PNVk bulego bat jarri du martxan Batzokian.

Argibideak emango dira astelehenetik ostiralera, 12etatik ordubatera eta 6etatik 8etara.

◆ Txirrindulari ikastaroa

Kirola euskaraz programaren barruan, txirrindularitza zuzendari ikastaroa emango da otsaileko ostiral eta larunbatetan Elgoibarko Kultur Etxean. Argibideak eta izen-ematea 77 91 35 zenbakian.

◆ Jarrairen protesta

Jarrairen deiari erantzunez, hainbat gaztek enkartelada egin zuten Bergarako Epaitegi aurrean asteazkenean, Oñatiko 3 gazte eta

Arrasateko beste baten epaiketaren kontra protesta egiteko. 1994ko Oñatiko jaietan gazteek istiluak izan zituzten ertzainekin.

◆ Sutea Elosun

Igande gauean sute bat izan zen Elosuko Agarreburu mendian, Emeterio eta Mateo Gabilondoren pinudietako 10 hektarea erre zirelarik. Astelehen goizerako sua guztiz kontrolatu ahal izan zen.

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi. BERGARA

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atekak, manparak...

Esku ezazu aurrekontua
konpromezu barik



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarroia 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

AGENTZIA:
J. ELKORO

Ibargarai, 2 behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH



UNIBER

HISPANIA

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

Ingurugiroa

Negua eta lurra

- Aurten badirudi negu suabea dugula. Nolako eragina izaten du horrek nekazaritzaren?

- Giroa jendea ibiltzeko, ondo dago baina gu geu beste urte batzutan baino gehiago gaisotu gara eta landara munduan beste horrenbeste gertatzen ari da. Alde batetik lehortea daukagu eta astebukaera honetan izan diren haizeekin suteak sortu dira. Bestetik, nekazari munduan ganaua kanpoan erabiltzeko aukera dago baina bestalde ondorioak izango dira, ikusi behar udaberriko belarra nola etortzen den. Ez badu euririk egiten kalteak izango dira, lurrak bere erreserbak neguan egiten ditu eta. Beste alde batez gehiago sufrituko dute frutarboleak. Hemen dauden sagar barietadeek eta fruituek hotz ordu batzuk pasatu behar dituzte derrigorrez gero lorea indartsu ateratzeko. Ikusita ze eguraldi joan den, lora gutxiago botako du, indar gutxiagorekin eta horrez aparte udaberria aurreratuta da-

tor. Neguan izugarritzko hotza eginda, bai landareek, bai frutarboleak, aguantatzen dute baina behin mugimendua, bizitza hasten denean izotz bat etortzen bada ziklo dena eten egiten da.

- Urte txarra izango al da aurtengoa?

- Nolabait ezin da esan baserritar guztiei gaizki joango zaienik, orain lana



KARMEN ITURBE
(Mendi Nekazaritzako teknikaria)

egiteko eguraldi ona egiten baitu: lurra lantzeko, basoan lana egiteko... baina gero horren ondorioak jasoko ditugu. Lehortea izango da eta nik uste dut neguak bere gogortasuna eduki behar duela

"Neguak bere gogortasuna eduki behar du gauzak ondo joateko"



Aurten lehortearen ondorioak jasan behar izan ditugu.

gauzak ondo joateko.

- Negua da urteko sa-soirik erabakiorrena?

- Ez, bere garrantzia duen arren. Orain arte kalte gutxien egin duena izan da. Negu gogor batek kalteak ekar ditzake (argi indar barik geratzea adibidez) baina aurtengo negu suabeak ondorioak ekarriko ditu beste zentzu batean: lehortea eta orain sortu diren haizeekin suteak izan daitezke. Udaberria erabakiorragoa da. Hemen beti udaberriak nahiko garrantzia izan du.

- Eguraldia aldatzen ari dela esaten da...

- Ez dakit zenbateraino egia den. Egia da zikloak egoten direla. Benetan eguraldia aldatzen ari den hemendik urte batzutura jakingo dugu. Azkeneko urtetan lehortea gehiago afektatzen digu, euri gutxiago egiten du... izan daiteke baina dauden inbestigazioek eritzi ezberdinak ematen dituzte. Argi dago atmosfera kutsatzen ari garela eta horrek bere eragina izango du.

- Eta produktuen kalitatean igartzen al da hori?

- Segun bakoitzak nolako teknikak erabiltzen dituen. Niretako kalidade-ari buruz berba egiteko produktu kimikoak erabiltzen dituzun ala ez eta zeure laborantza nola egiten duzun aztertu beharra dago.



Matxiategi
Elektragintza
C.B.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Fleming Doktorea, 5
☎ 76 19 94

ANDONI
ARANZABAL
LAZCANO

FINKA ADMINISTRATZAILEA

Barrenkale, 7 1. Eskuma BERGARA
☎ 76 03 46

Jokin Etxaniz

25 urteko bergararrak bihar izango du orain arteko erronkarik handiena. Arretxe-ekin jokatu duen bi-bitako finalean Capellan-Beloki bikoteari erakutsi beharko dio bere eskurik onena.

- Zer moduz aste honetan?

- Aste luzea izan da. Normalean partiduetarako urduri jartzen naiz eta oraingoan finala denez, gehiago.

- Finalerako prestakunua berezia egiten ari zara?

- Joan zen asteko egun batean Anoetara joan ginen frontoia ikustera-eta, baina bestela beti bezala nabil. Arratsaldeetan Elgetako eta Oñatiko frontoietan entrenatzen dut, Zezeaga eta Elkororekin, eta goizetan gimnasia jokatzen naiz.

- Arretxeren bikotekide zara. Elkarrekin entrenatu duzue?

- Ez, nahikoa ezagutzen dugu elkar eta ez dago beharrik. Normalean hala izaten da, bikotekidearekin ez da entrenatzen. Pelotak aukeratzera-koan eta partidu aurretik hitzegiten dugu.



"Nahiago dut Capellan eta Belokiren aurka jokatzea, Unanue eta Elkororen kontra jokatuak 2 partidua galdu egin genituelako"

- Capellan eta Beloki baino freskoago egongo ei zarete.

- Beharbada eurak eskuetatik ez dira hain ondo egongo, guk, ostera,

15 egunetan ez dugu jokatu eta uste dut hori guretzat kaltegarri dela. Nik nahiago nuen jokatu izan bagenu.

- Finalean bikoteki-

de nor izatea gustatuko litzaizuke?

- Zezeaga. Laguna da, herritarra... Herrirako ikaragarria izango litzateke.

- Noren aurka nahi

"Galdu ala irabazi ospatu egingo dugu"



DEBA
GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

Deco-Textil

ZANGITU

Etzerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A



Txikitako bi argazki. Aldamenean, Unai Aranzabalekin batera, Tolosa ere alboan duela. Behekoan, ostera, Asier Garitanorekin (gaur egun Eibar futbol taldean).

frontoian izango da, gustoko frontoia duzu?

- Frontoi polita eta noblea da. Gainera Bergaratik jende asko doala uste dut eta horrek asko animatuko gaitu. Niretzat jendearen babesa oso garrantzitsua da.

- Finalean zerekin konformatuko zara?

- Hasierako helburua finalerdietara iristea zen, gero finalera. Orain finalista gara eta jokatzearikin ez naiz konformatzen, irabaztea nahi dut. Nahiz eta txapelketa ona egin izan, jendea azken partiduekin geratzen da eta galtzen badugu jendea horretaz akordatu

da. Hala ere, galduz gero ondo jokatzearekin konformatuko naiz.

- Nolako jokua egingo duzue?

- Beloki nola dabilen ikusita, gure asmoa aurrean jokatzea da. Hala ere, zaila izango da, beti defenditzen ezin delako ibili. Dena dela, partidurak esango du nola jokatu behar dugun.

- Arretxeren esperientziak lagunduko dizue, ezta?

- 8 final jokatu eta seguru nago final ona egingo duela. Baina arazoa Beloki da.

- Jendea noren alde egingo da?



zenuen jokatzeari?

- Nahiago Capellan-Belokiren kontra, Unanue-Elkororekin jokatuako bi partidurak galdu egin genituelako. Hala ere, bien kontrako partidurak izango ziren gogorrak.

- Espero zenuen finalera iristea?

- Ez. Hasieran ez nekeen jokatu nuen ere, azkenean sartu nintzen txapelketan, poliki-poliki ondo genbiltzala eta finalerdietara iritsi ginen eta orain finalerako gaude. Nire ustez suerte handia izan dugu.


- Suerteagatik zaudete finalean?

- Nire ustez bai, gu ez gara ibili gaizki, baina gurekin jokatu dutenak ere ez dira ondo ibili. Errastik, esaterako, ez du ohi bezain ondo jokatu eta hartara guretzat errazagoa izan da irabaztea. Eurak, ostera, partidu zailak eta gogorrak jokatu dituzte eta oso ondo daukela erakutsi dute.

- Orain arte egindako txapelketarekin pozik?

- Bai, pare bat partidu kenduta nahikoa ondo ibili naiz. Ligillan ez ginen hain ondo ibili, baina finalerdietan partidu onak egin ditugu.

- Partidua Anoetako



"Profesionalerara gazteegi pasa nintzen arren, uste dut profesionalerara jokatzu hartzen dela maila ona"

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai, 2
☎ 76 51 65

IZADI PILI GISASOLA
Zurradero, 2
behea.
☎ 76 58 83 **Santiveri** 
Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Pepelu
Ilepaindegia
Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA


- Belokiren jokoa eta Capellanen azken partiduak ikusita ez dut uste gurekin konfidantza handiegirik dagoenik.

- Nahiago duzu jendea euren alde egotea?

- Bai, horrelakoetan partidu hobeak egiten ditut. Dena aldeko ikusten dudanean zerbait gaizki aterako zaidala pentsatzen hasi eta gaizki ateratzen zait. Faborito ez izatea eta partidu gogorra izateak lagundu egiten dit.

- Aita: maisurik onena ala presioa?

- Maisurik onena. Profesionaletan debutatzeko baino gogo handiagoa zuen, baina onerako izan da. Gainean gehiegi ibiltzeak presionatu egiten du, baina nire kasuan ez da gertatu horrelakorik. Aitak lagundu egin



1992. urtean ohiko enpresek antolatutako binakako txapelketa paraleloa irabazi zuen Zezeagarekin batera Bergaran. Etzanizek aitortu duenez, garaipen hura oso garrantzitsua izan zen beretzat, txapelketan pelotari onenek hartu baitzuten parte.

dit eta lagundu egiten dit.

- Txikitan futbolean ere jokatzen zenuen.

- Akordatzen naiz futbola eta pelotaren artean aukeratzeko esaten zigitela. Nire ustez, ez dago hain goiz aukeratu beharrik, txikitan artean ez baitakizu zer nahi duzun. Ona da kirol bat baino gehiago egitea.

- Gaur egun ume gutxiago dabilta pelotan.

- Esaten digute laguntzeko, eta egia esan gehiago egin dezakegu, baina jokatzen jakin arren, ez dakit nola erakutsi.

- 20 urterekin hasi zinen profesional.

- Bai, beharbada gazteegi, ez nuelako jokatzen, baina era berean, profesionalen jokatuz

hartzen da maila. Lehenengo urtea gogorra izan zen, poliki-poliki joan naiz gorantz.

- Gogoan duzun partiduren bat?

- Zezeagak eta biok irabazi genuen txapelketa. Nahiz eta ofiziala ez izan maila handia egon zen. Aurrera segitzeko bultzada galanta izan zen.

- Zein pelotari bezalakoa izatea gustatuko litzaizuke?

- Retegi da niretzat onena, osatuena. Dena den, pelotari guztiek dute zerbait ona eta denetatik onena hartzea gustatuko litzaizuke.

- Banakako txapelketetan parte hartzea

Pelotakadaz pelotakada

Aita pelotari izanik, Jokin pelota artean hasi da. 4-5 urterekin hasi zen aitarekin frontoira joaten. Lehenengo txapelketa 7 urterekin jokatu zuen Bergaran. Gazte maila guztietan Euskadiko txapeldun eta 23 urtez azpikoetan txapeldun orde izan zen. 18 urterekin afizionatueta hasi eta bi urte egin zuen maila honetan; urtebetean soldaduzkan egon zen eta pelotan ez zuen gauza handirik egin. 20 urterekin egin zuen salto profesioaletara. 22rekin binakako txapelketa paraleloa irabazi zuen Zezeagarekin batera. Bihar txapelarekin etxeratuko delakoan gaude.

ITXASMENDI
ERREKADISTA
Barrenkale, 36
BERGARA
☎ 76 50 64 / 76 13 61
EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE,
ARETXABALETA, ESKORIATZA eta OÑATIRA.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi ☎ 76 15 09

Jokabideen Psikologia Kabinetea
J.R. FERNANDEZ
Antsietate, depresio, stress eta
bikoteen arazoaren diagnostiko eta
tratamendua
Ramon Maria Lili 2, printzipala eskuma
Telefona: 76 59 39 • Faxe: 76 25 72

Finalean zer gertatuko ote da?

Denak datoz bat Oso final gogorra izango dela esateko orduan

MIGEL ETXANIZ

Jokinen aita eta pelotari izandakoa

Jokin-Arretzek gogor jokatu beharko dute partidua irabazi nahi badute, batez ere Belokiren jokua ikusi eta Capellanen azken partidua kontutan hartuta. Garbi dago Arretzek

atzean lan handia egin beharko duela. Emaizta 22-17koa Jokinen-eta alde.

MAITE UNANUE

Jokinen neska-laguna

Aurrean Jokin izango da nagusi, atzean Beloki. Gogorra izango da, baina Jokinek-eta

irabaziko dutelakoan nago, 22-21.

REYES AZKOITIA

Pelota entrenatzailea

Beloki nola dabilen ikusita beldurra ematen du. Nire ustez atzean egongo da desberdintasun handia; pixka bat berdintzen bada Jokinen alde izango da. Nire pronostikoa 22-16 Jokinen-eta alde.

AGUSTIN IÑARRA

Pelota entrenatzailea

Belokik orain arte bezala jokatzeko badu

eta Capellan gorantz doala kontutan hartuta... dena den Etxanizek ondo jokatuz gero dominatuko du. Jokin-Arretxeren aldekoa naiz, 22-18.

JESUS MARIA URZELAI, TXAKO

Zaletua


Arretzek eutsi egin beharko dio Belokiren kontra jokatzeke. Jokinek, duda barik, partidua ongi egingo du. Nahiago dut bikote hau, Unanue arriskutsua baita. Nire ustez, 22-18koa

izango da emaitza. Jokin-Arretxe txapelkun.

JOSE MARI ZEZEAGA

Pelotaria

Logroñokoa ikusita zaila dute Jokin-Arretzek, baina kontutan hartu behar da oso bikote orekatua dela. Nire ustez biiek dute irabazteko aukera. Pronostikoa 22-18 Jokinen-eta alde. Hala ere, emaitza berdina da zenbatekoa, garrantzitsuena 22ra eurak iristea da.



"Txapelketan parte hartu ala ez egon nintzen. Hasi nintzen eta helburua finalerdietara iristea zen, gero finalera; Orain, finalera iritsi gara eta jokatzearekin ez naiz konformatzen, irabaztea nahi dut!"

pentsatu duzu?

- Jendeak ezetz esaten dit; niri gustatzen zait eta badut ilusioa, baina beharbada aurrerago. Orain dudan momentua aprobetxatu eta neure buruarekin konfidantza hartu behar dut.

- Pelotariak parrandarik egiten du?

- Kirolari guztiak bezala zaindu behar du. Gertatzen dena da gu urte guztian ari garela jokatzen, ez dugu denboraldi jakin baten ostean atsedunik eta ezin dugu parranda asko egin.

- Bihar zer egingo duzu?

- Ea gaur ondo lo egiten dudan, hori da garrantzitsuena. Bihar jeiki,

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkale, 29 BERGARA

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

JON TOLOSA

Pephia

Beda orain
fik handiena;
Cane
laren badio
negalduko dute
pala. Hala ere,
Etxek oso
txaketa ona egin
du Arretxek
bai finaletan
onkatzen.
Jolaguna dut eta
bek irabaztea
naut, 22-19.

JQERRASTI

Pea

Firra ikuskizun
poizango da,

pelotariak oso onak
direlako. Etxaniz eta
Arretxeren jokua
arriskutsua da,
Capellan eta
Belokirentzat ez da
egokia, eta nire
ustez Jokinek-eta
irabaziko dute 22-17.

XABIER EUSKITZE

Kazetaria

Bi bikoteetan osoena
da Etxaniz-Arretxek
osatzen dutena.
Belokik heldutasun
ikaragarria eta joku
sinestezina egin du,
baina ez dakit
Capellane presioari
aurre egiteko
gaitasunik duen.

Gakoa nire ustez
Arretxerengan dago,
garai batekoa
balitz... Hala ere,
nire pronostikoa
euren aldekoa da,
22-18.

JOSETXO LIZARTZA

Kazetaria

Arretxek atzean
etsiz gero
Etxanizek erabaki
dezake. Etxaniz
Capellan baino
gehiago da eta
Beloki Arretxe baino
gehiago. 21na egin
dezakete, nork
irabaziko duen,
horrek ez du
garrantzirik.

gosaldu, gorputza solta-
tzeko buelta bat eman,
ordubiak aldean bazkaldu
eta hirurak aldean Donos-
tiarantz abiatuko naiz.
Partidua baino pare bat
ordu lehenago han ego-
tea komenigarria da, on-
do berotzeko, Arretxere-
kin berba egiteko... Sa-
soiz joatea hobe izaten
da.

- Txapela burura-
tzen duzunean nola os-

patuko duzu?

- Ospatuko dugu, gal-
du ala irabazi, egun bere-
zi bat denez ospatuko du-
gu. Oraindik ez dakit nola
famiakoak, lagunak...
jende ugari izango da,
baina seguruenek lagune-
kin ibiliko naiz.

- Zure pronostikoa?

- Gogorra izango den
arren, irabazi egingo du-
gula uste dut; jar dezagun
22 eta 18.

Aitor Elkoro**Finalaren atarian geratu da**

- Zer moduz joan
da txapelketa?


- Borobiltzeko
finalera iristea falta
izan zaigu, baina oro
har, pozik egoteko
moduan nago. Hala
ere, maila honetan
jarraituz gero final
gehiago etorriko dira.

- Espero zenuen
finalerdietara
iristea?

- Unanuerekin
jokatu behar nuela
jakin nuenean bai.
Eibarren irabazi egin
genuen, eta Labriten
ere partidu ona jokatu
genuen, baina Beloki
oso ondo ibili zen.
Logroñoko Adarragan
istripu txiki bat izan
genuen.

- Gustatuko
litzazuke finala
Etxaniz-Arretxerekin
jokatzea.

- Duda barik. Ia
egunero elkarrekin
ibiltzen gara



gimnasioan eta
entrenatzen. Gainera
inguru honetarako oso
polita izango zen.

- Zapatuko
pronostikoa?

- Capellane hutsik
egiten ez badu eta
Belokik orain arte
bezala jokatzen badu
zaila izango dute
Jokinek-eta, baina
partidu guztiak
desberdinak direnez,
eurek irabaziko
dutelako esperantza
dut, 22-17.

Mariaren Lagundia Ikastola**Haur Hezkuntza (2-6 urte)****Lehen Hezkuntza (6-12 urte)****Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)****Lanbide Heziketa II - Sanitarioa****Aurreinskripzio epea:** Otsailaren 1etik 20ra bitartean.

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen ziklorako
(12-14 urte, lehengo 7. eta 8. mailak).

Idazkaritza orduak: Goizez: 9.00-11.30. Arratsaldez: 16.30-17.30.

Zein iritzi daukazu Gobernuak kotxeak erosteko bultzatutako laguntzei buruz?



Joxe Lazkano
65 urte, jubilatua

Ba kotxeak oraindik garesti daudela eta horrek ez diola arazoa konpontzen kotxe bat erosteko dirua ez duenari. Laguntza gehiago behar dira.



Manolo Ena
41 urte, langilea

Kotxeen prezioa jeisteko den guztia, ongi-etorria. Prezioak estabilizatzeko balio badute, ondo ikusten ditut laguntza horiek.



Mireia Orgaz
26 urte, langilea

Ondo dago, kotxeen industria oso indartsua delako hemen. Baina bestalde kotxeen kontra nago, garraio publikoak indartu beharko lirateke.



Miguel Angel Ibarzabal
49 urte, langilea

Sorpresaz harrapatu nauzue baina printzipioz ondo iruditzen zait. Kotxeen prezioa? Gauzak zenbat kostatzen diren kontutan izanda, normala pentsatzen zait.



Izaskun Saiz
30 urte, langilea

Ondo daude laguntza horiek baina kotxeak garestiak izaten jarraitzen dute eta ez dira horrenbeste igartzen.



Loli Gimber
22 urte, etxeoandrea


Nere ustez Gobernuak laguntza gehiago eman beharko lituzke. Bestela dauzkagun aurrekontuekin oso zaila da kotxe bat erostea.

TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

bazkari eta
afariak

Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR



Amillaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...

AZPEITXI

Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00

Jatetxea




Errioxako kontuak

Laister bi urte beteko ditut Errioxa aldean. Herri eta jende hauek maite ditut baina politika, kirol, kultura arlotan zenbait jarrerara ikusten dudanean harrিতuta geratzen naiz errioxarrak inor baino abertzaleagoak direla baitirudite. Ez dakit berez jaiotako sentimendu bat den ala euskaldunen eraginez sortutako defentsa jarrera bat. Nere ustez, haiek ere bere identitate ezaugarrien bila dabilta eta, noski, bere nortasunez arro daudelako berea defenditzeko prest aurkitzen dira. Maitasuna eta zaletasuna fanatismoa bihurtzen direnean kaltegarriak suertatzen dira. Kirol munduan azken biktimak Unanue eta Elgoro pelotariak izan dira. Errioxarra, pelotaz dakien publiko bat dela esan zuen Aitorrek Logroñoeko partiduaren aurretik, baina errioxar bat jokoan egoenez gero zaletasuna eta jakituria fanatismoa bilakatzen dira.

Polemika ederra ere suspertu zen Ebro ibaiaren beste ertzean El Correok bertan duen edizioak, "Vascos con historia" delako komiki bilduma iragarri zuenean, Gonzalo de Berceo eta Elhuyar errioxarrak euskaldunen artean aurkeztu zituelako. Logroñoeko prentsa protestaka ari da "neocolonialismo cultural"-aren mamua berpiztuz. Arrazoia ez zaie falta errioxarrei baina gehienek ez dakite Elhuyar anaiek, Logroñoekoak izanik, XVIII. mendean Bergarako Seminarioan bertako Laboratorium Chemicum-en wolframioa eriden zutela. Eta beste askok ez dakitena: Gonzalo de Berceoren obran, gaztelera izan arren, euskararen eragina somatzen da bere sorterrian euskeraz hitz egiten zelako. Berceotik oso gertu San Millán de la Cogollako monastegia dago, "gaztelaniaren sehaska" deritzona gaztelera idatzitako lehenengo lerroak han egin zirelako XI. mendean "Glosas emilianenses" delako dokumentuan, eta dokumentu berean euskeraz idatzitako lehenengo hitzak ere aurki daitezke. Horrela diote "izioqui dugu/guec aiutu ez dugu" ("piztu dugu/guk laguntzarik ez dugu"). Profezia ote?

German LARRAÑAGA



Consummoa est

Kalian, kotxe artian, jardinetan, hiri guztixetan ikusteko aukeria daukou. Ezte, ez, txakurrak! Gehixenetan gizonezkua, ofizio liberala, 1.80 m., trajia ta belarri onduan eskumako eskuakin eutsiz aparatu majjkoa: telefono mugikorra edo mobila. "La creme de la creme". Ezinbestekua, bizitza modernorako traste paregabia, bera barik hutsaren hurrengo.

Beste gauza askotan bezela, biharrezkua dala esangozkue, ezingotsau kontrakorik eñ modernismoaren izenian. Beharape-nak, rebajak be hasi die. Kontsumitu", aurreneko legia.

"Kontsumitu: 1-Ekoizten diren produktu edo ondasunak premiaren bat asetzeko erabili, gozatu. Kontsumismo: behar ez diren gauzak ere kontsumitzeko joera, kapitalismoaren eta kontsumo-gizartearen ezaugarri dena".

Zer da benetan premiazkua? Zeintzuk die benetan bihar ez eta erosten ditugun gauzak? Næure buruari esaten dotsat, beste askok bezela, eztoela kontsumista izan nahi. Nire inguruak, berri, kontrakua esaten dosta: adibidez, atzo bihar barik erositakua (badakizue praka eroatera jun ta azkenian, alkondaria, jertsia ta praka: konpleto).

Hau nahastia! Ta hori gutxi balitz, errebatjan hartutako ordenagailua izo7rat"en hasi da^a Kag=en zotz! Santo Tomasek esango lukeen moduan: consummoa (tum) est.

Asis IRIONDO



KORTA-ZAR

Txokolategia

*Pintxo eta ogibitartekoen
espezialitatea*

**OSTIRALETAN GOIZEKO
9ETATIK ZABALIK**

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

Masterreka 24

*Nepal, India eta Hego
Amerikako jantziak*

Masterreka, 24 BERGARA

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa

Amillaga, 1 (B Pabiloia)

☎ 76 28 04

BERGARA

SUBIJAI

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41



■ Eskulan erakusketa

Izaskun Saiz eta **Edurne Uribe-salgoren ikasleen** eskulan erakusketa egongo da ikusgai igandera arte Kultur Etxean. Benetan lan bikainak egin dituzte ikasleek: pertxeroak, pitxarrak, lorontziak eta etxerako beste hainbat apaingarri. Erakusketa zabalik izango da aste-bukáeran, 12etatik ordubietara eta 6etatik 8etara.

■ Kanarietara bidaiá

Arantxa Alberdik Puerto de la Cruzera bidaiá egin ahal izango du hurrengo asteetan. **Ibargaraiko dendariek** Gabonetan antolatutako zozketan **8.366 zenbakia** saritua izan zen eta Arantxari boleto hori suertatu zitzaion **Lagun Aro-RACEko** Bergarako delegazioan. Horri esker, esan bezala, astebete igaro ahal izango du Arantxak Kanarietan beste pertsona baten laguntzaz. Argazkian Arantxa Alberdi saria jasotzen **Ramon Iraegi** Lagun Aro-RACEko arduradunaren eskutik. Hori zortea, hori!! Ondo pasa!!



■ Karnabaletako kartela

Elena Reifs bergarar gazteak irabazi du Udaleko Kultur Zerbitzuak antolatutako karnabaletako kartel lehiaketa. Aurreko edizioan ere Elena Reifsek lehen saria eraman zuen. Lehiaketara 5 lan aurkeztu ziren

eta epaimahaiak

Reifsen lana

aukeratu zuen

karnabaletako

programaren azalean

agertzeko. Sari gisa,

50.000 pezeta

eramango ditu. Elena

Reifsek kolore biziak

erabili ditu bere

lanean, karnabaletan

ohizkoak diren

irudiak (maskara eta

mozorrotutako

pertsonaia bat)

agertzen

direlarik.



Carmen Garate


Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

IGARZA


**MERZERIA
LENZERIA**

Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA



■ 007 Udaltzaina

Herriko udaltzainei plaka berriak banatu zaizkie orain gutxi. Lehengo urdina eta gorria baldin bazen ere, oraingoa guztiz urdina da, bertan Udaleko harrarriak ikusten delarik. Plaka dotorea, duda barik, eta herritarrengan errespetu handia sortarazten duena. Are eta gehiago, parean 007 udaltzaina tokatzen bazaizu. 15 udaltzain direnez, bakotzari zenbaki bat egokitu zaio eta tartean bada 007a duena ere. Espero dezagun herriko Bond agenteak pantaila haundikoaren pareko umore fina azaltzea multak jartzeko orduan...



Zertan dihardute ba?



Xabier De Zerio artistak, Ibercajaren bitartez, bi erakusketa egin ahal izango ditu datozen egunetan. Batetik otsailaren 12ra arte ikusgai dago Zaragozako Ibercajako Zentro Kulturean De Zerioen erakusketa eta, ondoren, Huescako Ibercajako Zentroan izango da, otsailaren 15etik 29ra arte. De Zerio eskultura eta diseinua lantzen ditu batipat. Eskulturen artean, iazko udan Bardeetako artzaiaren omenez egindako eskultura egin zuen Bidangozen. Bargetakoa (Nafarroa) izatez, De Zerio urteak daramatza gure artean eta gaur egun espresio artistikoko klaseak ematen ditu San Martin de Agirre ikastetxean.

ileapaindegia
eder gela
disdira
Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

GURIDI altzariak
Era guztietako altzariak
Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02

EGUREN
GESTORIA
Maria Pilar Eguren Díez
Kolegiatutako administrazio gestorea
Simon Arrieta Plaza, 3 behea
☎ 76 21 65 / 76 24 45

Juan Imaz "Errenteri"

Nork ez du ezagutzen Juanito Imaz, "Errenteri"? Ezagutu ezean, astebururo egoten da plazan era guztietako gauzak saltzen eta bertan ezagutuko duzu 73 urteko gizona.

- Zergatik "Errenteri"?

- Aita Errenterikoa zelako.

- Noiztik gauzak saltzen?

- 63ko otsailetik, edateari laga nionetik.

- Zer saltzen hasi zinen?

- Neska-mutikoei zaletasuna sortzeko txanpon eta zigiluak.

- Zer da gehien gustatzen zaiena?

- Txanpon bitxiak: txinakoak japonkoak...

- Non ibili zara gauzak saltzen?

- Madrilen, Bartzelonan, Valentzian, Alicanten... orain Gasteizera ere joaten naiz.

- Umerik ez zaizu beldurtzen?


- Hasieran batzuk bai, baina gero oso ondo konpontzen naiz.

- Duzun gauzarik politena?

- Eratzun errusiar bat, lupaz begiratuta igitaia eta mailuka ikusten da.

- Gertatu zaizun gauza bitxiren bat?

- Brontzeko 11 almirer eta berunezko bat saldu nituen.



"Yogari buruzko liburuak irakurtzen ditut. Etxaniz eta Arretxek zer egingo duten ez dakit, frontoia ez zait gustatzen, kea kendu ezinik ibili behar da eta. Kartetan ibiltzea gustatzen zait. Joku guztiak gustatzen zaizkit, baina gehien 43a"

Berunezkoa izan beharrean platinozkoa zen eta erosi zuena aberastu egin zen.

- Zenbat urte bildumazaleen elkarteetan?

- 15 urte. Zigiluak, txanponak, txokolate fakturak, mineralak... ditut.

- Kantaria?

- Erreperitorio handia dakit. Habanerak, bilbainadak... gustatzen zaizkit.

- Realala Athletic?

- Realala, duda barik.

- Zergatik beti gorroarekin?

- Hotzagatik, norbera adornatu behar delako eta jendeari zeresana emateko.

- Egunean zenbat kafe hartzen dituzu?

- Lehen 10-14 eta zapatuetan 20 ere bai. Behin 34 edan nituen. Orain, berriz, esnea kafe txorrotada batekin hartzen dut.

- Argazkizalea zara?

- 7-8 urte nituenetik hasi eta 100 argazki zahar baino gehiago izango ditut.

- Zein da zure horoskopoa?

- Tauro. Kuriosidadez irakurtzen dut.

- Zinera azken aldiz noiz?

- Zapatuan, Victoria Abrilren bat ikusi nuen.

- Kartetan jokuan ibiltzea gustoko?

- Komunismoa, tutea, musa, denak gustatzen zaizkit, baina gehien 43a. Elkarri ezin zaio engainatu.

Biltoki



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

PHILIPS



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK.
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK.
100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK.
ALFONBRAK, LARRUZKO SOFAK.
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK.

SAN MARTIN PLAZA ☎ 76 43 51

SONY

TB, BIDEOAK, KAMARAK.
HI-FI EKIPOAK.
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

ETXEBIZITZA

Lokal komertziala Muger-tzan salgai ☎ 76 13 62.

Aranerrekan **pisua** salgai. (12.500.000 pzta.) ☎ 76 00 39 / 79 27 68.

Pisua salgai San Antonion. Bi ganbara. ☎ 76 46 22.

Pisua salgai. Lorategiarekin. ☎ 76 15 76 / 76 33 85.

Pisua salgai Koldo Eleizalde 26an. ☎ 76 44 84.

Pisua salgai Burdiñaten. 70 m². ☎ 76 38 06.

Pisua salgai K. Eleizalden. Garajearekin. ☎ 76 45 16.

Gela bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 57 70 (Enri).

Lokala alokairuan Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 69.

Garajea (bi plaza) salgai Aranerrekan. ☎ 76 06 96.

Baserria eta lonja salgai Uberan. ☎ 76 10 00.

Pisu bat alokatzen da Antzuolan. ☎ 76 21 06.

Garaje bat alokatuko nuke Burdiñaten. ☎ 76 18 52.

Garajea alokairuan Zurraderron. ☎ 76 37 69.

Pisua salgai Bidekurutzetan. ☎ 76 56 07.

DENETARIK

Txakurrarendako kasetaxikia salgai. ☎ 76 09 12.

Poltsikoko **Casio telebis-ta** salgai. ☎ 76 56 13.

Logela salgai. Rustiko estiloa. 2x1,60 m.ko ohea, mesillak eta armarioa. ☎ 76 52 31.

Fiat Uno 45 (SS-AC) kotxea salgai. ☎ 73 35 35.

Opel Corsa (SS-AJ) kotxea salgai. ☎ 76 28 17.

Mendiko bizikleta bat eta Flanders aluminiozko koadroa salgai. ☎ 76 47 94.

San Antonion **pisua** konpartitzeko lagun bat behar da. 15.000 pta. hilero. ☎ 76 30 34 (David/Lisa).

Renault 4 F6 kotxea salgai. ☎ 76 22 11.

Bigarren eskuko **karabina** erosiko nuke. ☎ 76 24 31.

Kawasaki 125 KX motorrak salgai. ☎ 76 25 50.

Musika bateria salgai. la berria. 55.000. ☎ 76 08 58.

Bizikletan aritzeko rodilloa erosiko nuke. ☎ 76 18 78.

Josteko makina salgai. Egoera eta prezio onean. ☎ 76 48 47 (Loli).

Mahai borobila salgai. 90 zm.ko diametroa. Singer makinaren oinarria. 20.000 pezeta. ☎ 76 52 31.

"Imar" karro-denda salgai. ☎ 76 58 62 (gauze).

Comodore ordenagailua salgai. 50.000 pezeta. ☎ 76 56 13 (Iker).

LANA

Aleman klaseak ematen dira. ☎ 76 12 77 (Maite).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59 (Inma).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Tai Chi klaseak ematen dira. ☎ 71 41 91 (Marijo).

Matematika klaseak. ☎ 76 06 50.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89

Etxeko lanak egin eta haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 82 (Isabel).

Ingeles Filologia duen neska batek lan egingo luke. ☎ 76 40 63 (Manoli).

Cambridgeko titulua duen publizitate lizentziatuak ingeles klaseak emango lituzke. ☎ 76 06 56 (Irene).

Neska euskaldun bat behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 76 57 93.

Neska batek haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 18 75.

Gutxitu sikikoak, haurrak edo zaharrak zaintzen ditut. ☎ 76 48 65 (Paki).

**EDEL
TAPIZDENDA**

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta, 14 BERGARA

**ARRASTRO
Birziklaia**

Erabilitako objetuen berreskurapena:

altzariak, saneamendua, etxerako tresneria, aintzinakoak.

Altzari bilketa • Zurgintza lanak • Beira eta ispiluak.

BIGARREN ESKUKO ALTZARIAK PREZIO ONEAN!!

Erabiltzen ez dituzun altzari edo tresneriarik badaukazu dei egin 78 32 88 telefonora eta geuk batuko ditugu

Gure ordutegia hurrengoa da:

Astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 4etatik 8etara. Larunbatetan, goizeko 11etatik ordu 2etara

Kalezaharra 54 - OÑATI - Tfnoa: 78 32 88

BONOFOTOA



M. A. ELKOROBerezibar



Aitziber Gauna

Aitziber Gaunak irabazi du aste honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galderak berak asmatu eta zozketak hala erabaki baitu. Argazkietan agertzen zen "Bakearena" izeneko eskultura norena den eta ze ermitaren atzealdean dagoen galdetzen genizuen eta erantzun zuzena honako hau zen: **Juan Balentziaga eta Santa Ana**. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Aitziber Gauna**ri eman dizkiogu. Zorionak!!

Zein da baserri honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

1. MAILA

| TALDEA | P | J | G.A. | G.K. |
|--------------------------|----|----|------|------|
| 1. ERROTAGAIN | 22 | 9 | 34 | 17 |
| 2. MADURA INDUSTRIAS GOL | 19 | 10 | 33 | 17 |
| 3. BAR CANALEJAS | 19 | 10 | 27 | 12 |
| 4. MONGATXURRA | 18 | 9 | 35 | 17 |
| 5. OGIZUN | 17 | 10 | 33 | 30 |
| 6. KABIA | 17 | 11 | 28 | 26 |
| 7. ORTZI | 16 | 10 | 23 | 21 |
| 8. BERGATRANS | 15 | 9 | 26 | 18 |
| 9. ARLOTEAK | 8 | 9 | 14 | 23 |
| 10. OZAETA | 6 | 9 | 20 | 26 |
| 11. BILDURABEK OPEL/LAM | 6 | 8 | 16 | 19 |
| 12. UFALA | 2 | 10 | 17 | 41 |

2. MAILA

| TALDEA | P | J | G.A. | G.K. |
|-------------------------|----|----|------|------|
| 1. JAUJA OH ZEREZOS | 25 | 9 | 70 | 23 |
| 2. A ZE FLAXA | 22 | 10 | 34 | 26 |
| 3. PAGOMENDI | 20 | 10 | 51 | 33 |
| 4. HARTU ZAMAK | 20 | 10 | 38 | 27 |
| 5. ETXAGI | 16 | 11 | 53 | 44 |
| 6. NAIKARI HOOLIGANS | 13 | 10 | 28 | 39 |
| 7. KAYAK OS JARDINEIROS | 12 | 9 | 48 | 33 |
| 8. UVE BIKOITZA | 12 | 10 | 32 | 49 |
| 9. AUTOBEREZI | 9 | 10 | 37 | 46 |
| 10. HALTZARI | 9 | 10 | 27 | 47 |
| 11. ERI | 7 | 11 | 32 | 43 |
| 12. INDARGORRI | 6 | 10 | 17 | 28 |

3. MAILA

| TALDEA | P | J | G.A. | G.K. |
|--------------------|----|----|------|------|
| 1. KIROLZALEAK | 28 | 12 | 59 | 29 |
| 2. SOROPOTROAK | 27 | 11 | 60 | 32 |
| 3. LA JUVE | 19 | 11 | 38 | 38 |
| 4. NEKROFIKOS | 18 | 11 | 42 | 32 |
| 5. MOSKIS | 17 | 11 | 28 | 36 |
| 6. CONSTR. BERGARA | 16 | 11 | 37 | 30 |
| 7. AMOZKIBAR | 16 | 10 | 23 | 17 |
| 8. EZINLEIKE | 14 | 10 | 46 | 31 |
| 9. EH BITERRAK | 11 | 10 | 17 | 33 |
| 10. SHAKTALE | 8 | 11 | 23 | 41 |
| 11. ARI ARI | 6 | 10 | 38 | 58 |
| 12. IGANDEKOAK | 4 | 9 | 20 | 32 |

4. MAILA

| TALDEA | P | J | G.A. | G.K. |
|--------------------|----|----|------|------|
| 1. FAC | 25 | 9 | 47 | 18 |
| 2. PJS | 22 | 10 | 50 | 17 |
| 3. GUADALEST | 17 | 9 | 42 | 20 |
| 4. OSINTXU | 17 | 10 | 45 | 24 |
| 5. TXIPIRON | 16 | 9 | 33 | 18 |
| 6. PATXARAN TEAM | 14 | 9 | 31 | 21 |
| 7. PATA NEGRA | 13 | 10 | 28 | 51 |
| 8. MATXAKATEGI | 11 | 10 | 41 | 46 |
| 9. LABEGARAIETA | 7 | 10 | 20 | 53 |
| 10. ALDOKA MALDOKA | 7 | 10 | 34 | 34 |
| 11. XURRUPAK | 0 | 8 | 15 | 56 |

TALDEAK



Bildurbarek Opel-Lam taldea Eneko Azkarate, Josu Arana, Aitor Salaberria, Gustavo Abajo, Asier García, Xabier Mujika, Carlos Lasa, Joseba Azkargorta, Eduardo Muruamendiarras, Iker Muruamendiarras, Asier Altuna, Jesus Mari Kalboetxeaga eta Carlos Etxanizek osatzen dute. Hasieratik dabilta txapelketan jokatzeko eta behin 4. sailkatu ziren. Izenari dagokionez ez dute zerikusirik "Rambo" famatuaren anaiarekin, baina gauzek horrela jarraitzen badute, txapelketa amaieran baliteke "Rambo"ren anaiaren esaldi famatua euren ganatzea.

PARTIDUAK

LARUNBATEAN BARRUAN

- 16:00: EH Biterrak-Igandekoak • Amozkibar
- 17:00: Ezinleike-Amozkibar • Igandekoak
- 18:00: Hartu Zamak-OH Zerezos • Ezinleike
- 19:00: Bildurbarek-Ogizun • Hartu Zamak
- 20:00: Xurruapak-Guadalest • Bildurbarek

LARUNBATEAN KANPOAN

- 16:00: Uve Bikoitza-Kayak OJ • Ozaeta
- 17:00: Ozaeta-Ufala • Uve Bikoitza

IGANDEAN BARRUAN

- 09:00: FAC-Txipiron • Pagomendi
- 10:00: A Ze Flaxa-Pagomendi • FAC
- 11:00: Patxaran Team-Xurruapak • A Ze Flaxa
- 16:00: Kayak OJ-Autoberezi • Indargorri
- 17:00: Haltzari-Indargorri • Kayak OJ
- 18:00: Arloreak-Madura Ind. Gol • Errotagain
- 19:00: Errotagain-Bar Canalejas • Madura
- 20:00: Ortz-Mongatxurra • Bar Canalejas

IGANDEAN KANPOAN

- 16:00: Naikari Hooligans-OH Zerezos • Ozaeta
- 17:00: Bildurbarek-Ozaeta • Naikari Hool.

EMAITZAK

1. MAILA

| | |
|-----------------------------------|-----|
| OGIZUN-KABIA | 5-3 |
| MONGATXURRA-MADURA INDUSTRIAS GOL | 4-1 |
| BAR CANALEJAS-ARLOTEAK | 5-0 |
| ANGIOZAR-UFALA | 4-2 |

2. MAILA

| | |
|--------------------|-----|
| ERI-AUTOBEREZI | 5-0 |
| ETXAGI-HARTU ZAMAK | 2-3 |

3. MAILA

| | |
|------------------------------------|-----|
| SHAKTALE-EZINLEIKE | 4-6 |
| NEKROFIKOS-LA JUVE | 4-5 |
| IGANDEKOAK-SOROPOTROAK | 0-5 |
| ARI ARI-KIROLZALEAK | 3-7 |
| MOSKIS-AMOZKIBAR | 0-1 |
| EH BITERRAK-CONSTRUCCIONES BERGARA | 1-4 |

KOMENTARIOA

LEHEN MAILAN ARI DEN BERGATRANS TALDEA TXAPELKETATIK KANPORATU DU ANTOLAKETA BATZORDEAK BI PARTIDUTARA EZ AURKEZTEAGATIK. ORAIN, KONTUA, MULTZOA NOLA BERREGITURATU DA. BERGATRANSI PARTIDU GUZTIAK BAT ETA HUTSEKO EMAITZAZ GALDUTZAT EMATEA IZANGO LITZATEKE NORMALENA, HORRELA EGIN BAITA AURREKO URTEETAN, BAINA ERABAKIA HARTU AURRETIK ARETO FUTBOLEKO FEDERAZIOAREKIN HARREMANETAN JARRIKO DA ANTOLAKETA BATZORDEA.

TALDEAK



Soropotroak Ibon Unamuno, Arkaitz Arana, Asier Arrieta, Manu Fernández, Iñaki Zabala, David López de Abetxuko, Alberto Mendikute, Eduardo Samaniego, Iosu Otaegi, Iñaki Olano, Aitor Muruamendiarras eta Aiert Lizarraldeak osatzen dute. 4 urte daramatzate elkarrekin eta hasieran lehen mailan izan baziren ere, aurtun 3. mailan daude. Igotzeko helburua dute. Izenari dagokionez, taldeko jokalaririk batzuk 2. mailan zebiltzanean Rivabellosako Udalekuetan jarritako izenari eusten diote.

TXINPARTAK

Nesken futbito txapelketa

Joan zen astebukaeran Miguel Altuna institutuko patioan jokatuak partiduetako emaitzak honako hauek dira: Potzu Ta Zapaburu taldea 5 eta 0 nagusitu zen Amondigak taldearen aurka; Guk taldeak, berriz, 1 eta 0 irabazi zion Blue Star taldeari. Astebukaera honetan hiru partidu jokatu dira.

Herriko igerilariak bikain Euskadiko Txapelketan

Herriko igerilariak ondo baino hobeto aritu ziren joan zen astebukaeran Tolosan jokatuak Euskadiko Igeri Txapelketan. Eneritz Muguruzak hiru urrezko domina lortu zituen, 100 metro krol, 200 metro krol eta 100 metro tximeletan. Antxon Maiztegi, ostera, urrezko domina lortu zuen 100 metro krolen eta brontzezkoa 100 metro sorbaldan. Eneritz Muguruzak Espainiako Igeri Txapelketan parte hartuko du otsaileko lehen astean Galizian. Bestalde, Gipuzkoako Igeriketa Txapelketa absolutoa jokatu da astebukaera honetan Legazpin. Bergararik 10 igerilari joango dira.

Pala txapelketa

Pala Txapelketan parte hartzeko epea luzatu egin da otsailaren 14ra arte. Txapelketa 17an hasiko da Osintxun.

Kirol sariak 95

1995eko kirolaririk onenak

Jokin Etxaniz (105 botu) pelotaria aukeratu dute Berrigarako irakurleen botuek Bergarako 1995eko goi mailako kirolaririk onena. Guztira, 311 botu jaso dira eta Jokinen atzetik, **Agustin Aranzabal** futbolaria (71 botu), **Iñigo Igartua** (36) ziklo-kross txirindularia eta **Martin Egaña** (30) kotxe pilotua sailkatu dira. Herriko kirolaririk onenak, Bergarako elkarteek aukeratu dituzte eta behean dituzue. Kirol elkarterik

onenak, berriz, **Ariznoa Gimnasia Erritmikoa** aukeratu dute herriko berriematek eta sari berezia, azkenik, **Honorio Agirregabiriak** eraman du. Honorio Agirregabiriak 83 urte ditu gaur egun eta urteetan Pol-Pol Mendizale Taldean eta ziklismoaren alde egindako lanagatik nabarmendu da. Bukatzeko, esan, **Izaskun Agirrezabali** tokatu zaiola bi lagunentzako afaria eta **Ander Urrilabeitiari** Kirol Zerbitzuko karneta.

1995eko

Goi mailako

kirolaririk

onena




JOKIN ETXANIZ
Pelotaria

1995ko


Herriko

kirolaririk

onenak



GORKA GONZALEZ
Igeri Elkarteko Waterpolo Saila



ANDRES CACHAFEIRO
Bergarako Badminton Taldea



NEREA MENDIZABAL
Ariznoa Gimnasia Erritmiko Taldea



GORKA MARTIN
Zaleak Atletismo Taldea



JOSEBA LARRAÑAGA
Lokatza Ziklismo Elkartea



AITOR GONZALEZ
Bergarako Karate Taldea



IGOR GUTIERREZ
BKEko Pelota Saila



GORKA FERNANDEZ
Beti Busti Elkartea




ASIER LINAZISORO
Pol-Poleko Snow Board Saila



MAITE AGIRREBEÑA
Pol-Poleko Ski Saila



JOKIN MENDIARAZ
BKEko Futbol Saila



EKAIN SOTIL
BKEko Eskubaloi Saila




ARITZ BIKUÑA
Aspaceko Boccia taldekoa



ENERITZ MUGURUZA
Bergarako Igeri Elkartea



IGOR URIZABEL
BKEko Saskibaloi Saila



XABIER OLABARRIA
Lagunak Areto Futbola Elkartea



JAVIER BIZARRO
Bergarako Xake Taldea

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ Bergara-Vasconia

Preferente maila.

Igandea, 15.45. Agorrosin.

◆ Bergara-Amaikak Bat

Ohorezko mailako jubenilak.

Igandea, 11.30. Ipintza.

◆ Bergara-Lagun Onak

Lehen mailako infantilak.

Larunbata, 15.45. Ipintza.

◆ Bergara-Ostadar

Emakumezkoak.

Larunbata, 10.00. Ipintza.

NESKEN FUTBITOA

◆ Push Team-Potzu TZ

Larunbata, 17.00.

Miguel Altuna Institutua.

Kantxa nagusia.

◆ Almondigak-Berdin Da

Larunbata, 17.00.

Miguel Altuna Institutua.

Bigarren kantxa.

◆ Guk-Berdin Da

Igandea, 17.00.

Miguel Altuna Institutua.

Bigarren kantxa.

ESKUBALOIA

◆ Bergara-Escolapios

Senior mutilak. (2. Nazionala).

Igandea, 12.30.

Labegaraieta kiroldegia.

SASKIBALOIA

◆ Alfis Bergara-Añorga

Junior mutilak.

Larunbata, 16.00.

Mariaren Lagundia.

◆ Bergara-Eskoriatza

Kadete neskak.

Larunbata, 12.15.

Labegaraieta kiroldegia.

Eusebio Ormaetxe

Bizikleta hartu eta errepidera

Eguraldi ona dela eta inguruetako errepideak zikloturistaz beteta daude eta horietako bat dugu Eusebio Ormaetxe. 66 urteko Loroñozaleak eguraldiak laguntzen duenean bizikleta hartu eta 60 kilometro inguruko bueltatxo bat ematen du. Halere, esan digunez, kontu haundiz ibili behar da kotxeekin.

- Astean zehar zenbat ibiltzen zara bizikletan?

- Normalean bizikleta urrian lagatzen dut eta martxoan berriz hasten naiz. Baina azkenaldian egiten duen eguraldiarekin astebarruan egunero irtetzen dut. Igandean ez, emaztearekin irten behar dudalako. Normalean Gatzaga aldera joaten naiz. Handik, Udantatik pasatuz, Bergarara bueltatzen naiz.

- Zer ematen dizu bizikletak?

- Nik bizikletan disfrutatu egiten dut. Niretzako hobby bat da eta ez dut nahi bizikletak ni menperatzea, alderantziz, bizikleta nik menperatzea dut gustoko.

- Arriskutsua al da bizikletan errepidera irtetzea?

- Bai, eta zenbat eta kotxe gehiago izan hainbat eta arriskutsuagoa. Halere, errepidera irtetzen zarenean istripua izan behar duzula pentsatzen joaten bazara, ez zara irtetzen. Errepideak arriskutsuak dira eta horregatik erne joan behar

duzu, batez ere Bergaratik Arrasatera, ez baitago arzenik. Oñatiko inguruak ere arriskutsuak dira.


- Istripurik izan al duzu inoiz?

- Ez, kotxeekin ez dut arazorik izan, baina erorketak izan ditut. Orain Gobernuak onartutako lege berriekin ziurtasun gehiago daukagu, bi txirridulari paraleloan joan gaitzkeelako. Kotxe eta kamioi gidariak normalean ondo portatzen dira, baina badira batzuk ez gaituztenak errespetaetzen. Orain kaskoa eramatea derrigorrezkoa da,

baina erosi dudán arren ez dut eramaten oso inkomodoa baita.


- Txirridularitza jarraitzen al duzu?

- Bai, gainera niri "Loroño" goitizenen jarri zidaten lagunek, 1957an Vuelta a España irabazi zuenean San Antoniora ekarri bainuen eta afari bat egin genuen bere omenez. Gero Marinozalea izan naiz eta gaur egun Indurain eta Olanoren jarraitzailea naiz. Tourrera joan naiz, azkeneko aldiz Perico Delgadok irabazi zuenean.



Eguraldi ona egiten duenean bizikletarekin bueltatxo bat ematen du.

"Lehen Loroñozalea, gero Marinoren jarraitzailea eta gaur egun Indurainena naiz"



Otxoteen lehiaketa Eibarren

Orain 50 urteko argazkia duzue goikoa. 1946ko Eibarko San Juan jaietan otxoteen lehiaketa ospatu zen Astelena pilotalekuan eta Bergarako Orfeoiko otxoteak lortu zuen garaipena. Gure herriko ahotsek zailtasun haundiko lan bat abestu behar izan zuten jendaurrean.

Itxuraz, jende gehiago eskatzen zuen lan bat zen baina 8 lagun biltzea nahikoa izan zen bergararren kasuan. Zortzi otxotek eman zuten izena baina batek baino gehiagok uko egin zion lehiaketan parte hartzeari lehiaketa egunean bertan. Argazkian agertzen direnak beren maila azaldu eta, meritu haundiz, gainontzeko taldeei nagusitu zitzairen.

Horra hor argazkian agertzen direnen izenak. Ezkerretik eskumara: Donato Gallastegi eta Juan Amilibia lehen tenoreak, Jesus Berroya (otxoteko zuzendaria) eta Eulogio Zabaleta bigarren tenoreak, Victor Gallastegi eta Marcial Garitano "Txara" baritonoak eta Felix Aranburu eta Antonio Peña bajoak.

Argazkia: Jesus Berroya



zumelaga
JATETXEA


IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio,
5 BERGARA
☎ 76 20 21

ZUBIETA
elektragarintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



BERGARAKO OSASUN Gida

ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak). Telefono mobila: 908 77 17 32. ☎ 76 43 29
- ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albitari ofiziala). Telefono mobila: 908 77 17 32. ☎ 76 43 29
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) - Iribar baserria ANTZUOLA. ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 908 87 68 47 (Mobila) - Koldo Eleizalde, 28. ☎ 76 27 97

ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparagirre, 1 behea. ☎ 76 27 95
- BERGARA HAGIN KLINIKA - Bidekurutzeta 6, 2. ☎ 76 05 77
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri, 5 behea. ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale 1, 1.C. ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behea ezk. ☎ 76 07 66
- GIPIZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E.M. - S. Arrieta 3, 2.B. ☎ 76 38 54

FISIOTERAPEUTAK:

- ARZAK Miren (Reeducacion Postural Global) - Masterreka, 7 4.C. ☎ 76 43 71

GINEKOLOGOA:

- SERRANO Doktorea - Ramon Maria Lili, 2. ☎ 76 59 39 - 72

MASAILARIAK:

- AGIRREZABAL Jose Jabier - Boni Laskurain 1, 2.A. ☎ 76 15 74
- AZPEITIA Irune - Agorrosingo udal igerilekuak. ☎ 76 20 51
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain 5, 2.E. ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain, 3 behea. ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka 7, 3.A. ☎ 76 51 18

MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain 3, 1.B. ☎ 76 37 50

PEDAGOGOAK:

- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia, psikomotrizitatea) - Simon Arrieta 3, 2.E. ☎ 76 26 42

PODOLOGOAK:

- ALTUBE Ecurne - Simon Arrieta, 2. ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak, z/g. ☎ 76 41 32

PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin Plaza 2, 1.ezk. ☎ 76 26 64

PSIKOLOGOAK:



- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA, ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). ☎ 76 30 76

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea
Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR



Sukalderako altzariak